

# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSASUN SAILA

### 2993

*AGINDUA, 2018ko maiatzaren 22koa, Osasuneko sailburuarena, Durangoko farmazia-eskualdean farmazia-bulego bat sortzeko prozedurari hasiera eman zaiola iragartzen duena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34.1 artikuluan ezartzen denez, farmazia-bulego berriak irekitzeko deialdia edo, hala bada, deialdi hori bidezko ez dela aditzera ematen duen iragarpena urte bakoitzeko lehen seihilekoan egingo da, biztanleen udal-errola berrikustetik ateratako datuak izan ondoren.

Bada, datu ofizial horien azterketatik ondorioztatzen da Durangoko farmazia-eskualdean farmazia-bulego berri bat irekitzea bidezkoa dela.

Hori guztia kontuan hartuta, hau

#### EBAZTEN DUT:

1.– Farmaziak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautu zituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuan xedatutakoarekin bat (otsailaren 3ko 24/2004 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori), Durangoko farmazia-eskualdean farmazia-bulego berri bat irekitzeko deialdia egiten da.

2.– 11/1994 Legearen 13. artikuluan xedatutako irizpideekin eta 2018ko biztanleriaren datuekin bat, deialdiko farmazia-bulegoa Durangoko udalerrian kokatu beharko da.

3.– Farmazia-bulegoaren titulartasuna lortzeko eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabetekoa izango da.

4.– Aipatu eskabideak ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako agiriak erantsita aurkeztu beharko dira, 24/2004 Dekretuak emandako idazkeran.

5.– Eskabideak aurkezteko lekuak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoez gain):

Osasun Saila.  
Donostia kalea, 1.  
01010 Vitoria-Gasteiz.

Arabako Lurralde Ordezkaritza.  
Olagibel kalea, 38.  
01004 Vitoria-Gasteiz.

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.  
Antso Jakitunaren kalea, 35.  
20010 Donostia-San Sebastián.

2018ko ekainaren 8a, ostirala

Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza.  
Errekalde zumarkalea, 39.  
48008 Bilbo.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 22a.

Osasuneko sailburua,  
JON DARPÓN SIERRA.